

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Joxe Manuel Arrieta Lekubide
Bernaola*

*Mutiloa,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Joxe Manuel Arrieta, "Bernaola", Mutiloako Ergoiena auzoko Bernaola baserrian jaio zen 1935ean. Hamalau urte zituela, morroi joan zen Ezkio-Itsasora, bere amaren sendiaren etxera. Bertan zegoela, lan asko egiteaz gain, Zumarragako gau-eskolara ere joan zen eta han ikasi zituen eskola kontuak; izan ere, ordura arte eskolara gutxi joandakoa zen Joxe Manuel. Bost urte morroi egon ondoren, berriz itzuli zen Mutiloara eta baserrian eta baso lanetan aritu zen 40 urterekin Legorretako papertegian lanean hasi zen arte; bertan erretiratu zen. Elkarriketa egiten zaion unean 76 urte ditu Bernaolak, herrian bizi da bere emaztea eta seme batekin, baina goizero bere jaiotetxera joaten da, bertako lantxoak egitera.

Zintak

MTL-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarriketatzailerak(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-10-06
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Egun berean bi haur jaio ziren Mutiloan

- **Erref:** MTL-002/002
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:46. **Bukatu:** 00:02:42

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Bera jaio zen egunean, Mutiloan, beste haur bat ere jaio zen; oraindik harremana dute. 30 urte inguru zituela izan zuen Joxe Manuelek kointzidentzia horren berri.

2. Baserriko lanek eskolarako denborarik uzten ez

- **Erref:** MTL-002/005
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:05:17. **Bukatu:** 00:06:26

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Zumarragako gau-eskolan aritu zen ikasten morroi zebilen bitartean. Lehen baserrian lan asko egin behar izaten zutenez, ez zuten eskolara joateko astirik izaten.

3. Txoriak eta karramarroak etxeko mahaian

- **Erref:** MTL-002/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:07:06. **Bukatu:** 00:08:13

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:

Jolasteko, txori bila joaten ziren. Harrapatutako txoriak jan egiten zituzten. Udan errekarra joaten ziren bainatzera, eta karramarroak harrapatzen zituzten han.

4. Harrobitik soldadutzara

- **Erref:** MTL-002/011
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:14:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>19 urte zituenean, etxera itzuli zen eta Patrizioren harrobian hasi zen lanean. Harrobiko lana nolakoa izaten zen azaltzen du. Bi urte han eman ostean, soldaduskara joatea tokatu zitzaion, eta ezin izan zuen egur-lanetara joan; hala ere, orain ez du horren penarik, lan gogorra baita hori.</p>

5. Soldadutzan han eta hemen

- **Erref:** MTL-002/012
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:53

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Irunen egin zuen soldadutza; hala ere, garai batean Donostian egon

behar izan zuen, Afrikako gerrara eramango ote zituzten zain. Azkenean, ez zuten joan behar izan. Carrascalen ere izan zen soldadutzan.</p>

6. Meza, anisa eta baserrira lanera berriro

- **Erref:** MTL-002/015
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:18:09. **Bukatu:** 00:20:02

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

Lehen denak elizara joaten ziren mezara; eta handik irtetean, gizonek anisa edaten zuten. Etxera etorritakoan, baserriko lanei ekin behar izaten zieten. Ganaduak lan asko ematen zuen, baina handik bizi ziren.

7. Errotak itxita eta etxean jan egin behar

- **Erref:** MTL-002/017
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:25:02

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Ama Ordiziara joaten zen jeneroa saltzera eta eroztera. Garai hartan, olio oso garestia zen. Umetan zer jaten zuten aipatzen du. Lehen errotak itxita egon ziren, eta guardia zibilak begira egoten ziren norbait harrapatzeko zain. Guardia zibil haiek Segurako kuarteletik etortzen ziren.

8. Txerri-bodak

- **Erref:** MTL-002/019
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:29:02

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Txerri-bodaz hitz egiten du. Txerrikiak banatu egiten ziren familiartekoen artean. Urte guztirako mantenua izaten zen hura. Txorizoa eta urdaiazpikoa gorde egiten ziren normalean.

9. Lehengo patatak eta indabak

- **Erref:** MTL-002/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:29:02. **Bukatu:** 00:30:27

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Lehen bertako hazia erabiltzen zuten patata egiteko; eta patata gutxiago izaten zen orduan. Indabak lehen hobeak ziren; ez zuten indaba faltarik izan.

10. Fabrikan lan egitea errentagarria ez zenekoa

- **Erref:** MTL-002/021
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:30:27. **Bukatu:** 00:31:32

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lehen ez zegoen diru askorik, eta fabrikan lan eginda ateratako soldata oso eskasa izaten zen.

11. Arropa gutxi eta iraunkorra

- **Erref:** MTL-002/022
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:31:32. **Bukatu:** 00:32:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehen arropa Ordizian erosten zuen amak. Arropa gutxi izaten zuten, eta zeukatena haustean, konpondu egiten zuten.

12. Kongregazioko arauak

- **Erref:** MTL-002/025
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:37:24

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Lehen elizara joatea oso garrantzitsua zen. Luistarren kongregazioan ibiltzen ziren, gurasoek hala nahi baitzuten. Luistar izateagatik zer egiten zuten aipatzen du. Lehen ezin zen egin dantza lotua; elizara mahuka motzetan ezin zen joan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com